

# Berbarotarra

## IRAGAN IKARAGARRI ONA

11 urteko neskatila da Kattalin, irribarretsua eta abentura-zalea. Milaka abentura bizi izan ditu urteetan eta iaz, uda sasoia gertu zegoela, beste baten bila gerturatu zen gurera. Udalekuetara joateko asmoa zuen, lehen aldiz, eta Udan Olgetanen izena eman zuen. Zein luzeak egin zitzaizkion bi hile horiek, irrikan zegoen-eta parte hartzeko! Uda heltzearekin batera, Olgetan barruan hasi zen Kattalinen abentura eta, 5 astez, goizak ezin hobeto igaro zituen lagunartean, imajinatzen ere ez zituen ekintzetan parte hartuta. Sopuertan, zuhaitzetatik egin genuen zirkuitua eta Laidan, Urdaibaitik barrena, piraguetan egindako ibilalditxoa gogoratzen ditu, bereziki, Kattalinekin. Gogoan ditu igerilekuetara egindako irteerak, tailer bereziak, Durango ezagutzeko burututako altxorraren bila, antzerkiak... Hainbeste pasadizo atsegingarri!

## UDAROA, EGUNDOKOA

Hezitzaileen eta umeen arteko orduko esperientzia bizi-bizirik duela, aurten emozio berrien bila dabil gure neskatila; 11 egun igaroko baititu Mendigorrian. Udaroan udaleku finkora etorriko da beste 59 lagunekin batera eta, orainoan ere, abentura berrien bila, jakina. Eguna noiz heldu irrikan dago, eta aterpetxeak igerilekua duela jakin duenean, lanean jarri du irudimena, "ederto pasatu behar dugu, ba", bere artean. Iaz parte hartu zuten gorabeherak entzun ditu: olinpiadak, ur eta zikin jolasak, Sendaviva, laburmetraiak, "mihiluzer" lehiaketa, aldrebes eguna eta beste hainbat ekintza. Aurten zer? Berdinak errepikatuko dira ala berriak izango ditugu? Lasai, uztailaren 8tik 18ra bitartean izango duzu-eta guzti hori egiaztatzeko aukera.

## DATORREN URTEA

Ibiltarira joateko gogoia izango du Kattalinekin? Aurten, Zumaiatik Bakiora joango diren gazteei eta bai Bortziritan barrena ibiliko direnei ere galdetuko die, esperientzia ikaragarriak izango direlakoan baitago.

**Aurten, behingoz, gozatu udalekuak!!**



# GUNEA EGUNA

Lehenengo Gunea Eguna ospatu genuen euskara elkarteetako kideok maiatzaren 19an, Azkoitian. Eguraldia ez genuen lagun izan, euria eta hotza frontoietan, baina barruak berotzea lortu genuen. 23 egitasmo arrakastatsu, kaleetatik kantu-poteoa, bazkaria, erromeria... giro ederra!



## Mikel Irizar. Topaguneko Lehendakaria.

### Pilak kargatuta Azkoitiatik? Zerekin?

Bai, indar handia ikusi nuen han. Herriz herri sormen itzela dago eta denok batuta ia edozein gauza egin genezake!

### Zertarako balio izan du egunak?

Elkarren berri izateko, aspaldiko lagunak agurtzeko eta ikuspegia zabaltzeko. Herrian gabiltzanean ahaztu egiten zaigu mugimendu zabal baten parte garela. Eta benetan da zabal, aberatsa.

### Etorkizunean zer?

Eraldaketa betean dago Topagunea, indarberritzen ari gara. Aukera ona dago haizea euskararen alde jartzeko eta horretarako komeni da denok egin dagigun putz, bakoitza gauden tokitik eta ahal dugun neurrian. Eta norabide berean, hori da garrantzitsuena.



## Karmen Irizar Topaguneko Lehendakari ohia eta Azkoitiako Maxixatzen Euskara Elkarteak kidea.

### Zer dala ta Gunea Eguna?

2011ko kongresuaren ondorioetako bat izan zen mugimendu artikulatua behar zuela gureak (euskara elkarteak). Hori buruan hartuta, elkarren berri sarean edo paperean baino, aurrez aurre elkarren ahotsa entzunez, eta proiektuak zuzenean elkarrekin eskutik ezagutzeko aukera emanda, gure arteko lotura sendotzea zen asmoa.

### Zure herrian, Azkoitian ospatu da.

Plazerra izanda 1.gunea eguna gurean ospatzea. Azkoitia ez da izan ohi euskarari lotutako kontutan protagonista eta ederra izan da batekoagatik gure herria, bestelako iritzi edo ikuspegiren gainetik, euskaraz bizitzeko aukera egin dugunon topaleku izatea.

### Zertarako balio izan du egunak?

Tokian tokiko lanetan ari garenon hurbiltze fisikoa, igurtzia sentitzeko, balio izan du. 25 proiektu erreskan aurkeztuta mugimenduaren benetako dimensio zabal eta anitzaz jabetzeko eta, horrela, aurrera begirako bidea egiteko oinarri sozial sendoaz gain, jakintza eta ahalmen izugarria ditugula ikusteko.

## BERBARO TALDEA Gorka Barruetabeña

2009an Berbarok egindako gogoeta batean "Berbaro Taldea" osatzen duten erakundeak elkarrengandik urrunduta zeudela ikusi genuen eta, hori horrela, indarrak batu beharra zegoela erabaki. Ordutik hona, makina bat batzar, hamar mila telefono dei, hogeita mila email eta ez dut esango zenbat zerbeza hartu ditugun gaiari bueltak emanaz. Helburua zein? Egiten dugun guztiari (eta benetan asko da) probetxu hobe ateratzea. Eta denok, Pleteruenean, Anboton eta Berbaron lan egiten dugun guzti-guztiok helburu bakar batekin lan egitea.

Izan ere ikaragarria da "Berbaro Taldea" deritzogun hau zenbat hasi den; 35 bat nominadun langile, durangaldeko 100 bat monitore urtean, 800 bat ume eta gazte hainbat udalekutan, era askotako ikuskizunetan hogeita hamar bat mila lagun, eta Anboton irakurleak 24 bat mila. Geure artean lan bateratuagoa eta ipar adostu bat bilatzeari ekin diogu; eta lortu egin dugu. "Euskarak 365 egun" kanpaina parte hartu zenuten zuetako askok, jardunaldiak ere egin ditugu taldeko langile guztiak batuta, eta ekintza bateratuak egiten ere hasiak gara.

Beraz, 2009. urtean hartutako erabaki garrantzitsu bat bete egin dugu. Eta helburu handi bat lortu dugunez, horretan ibili direnei zorionak eman behar dizkiegu, eta animoak gehiago egiteko. Eta zuri bazkide, esan nahi dizugu gure lana hobeto egin nahian ari garela eta zure laguntza eskertu egiten dugula. Eskerrik asko danoi.



## kronologikoki

2009 Berbaro Elkartearen Gogoeta  
2010 Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa Hausnarketan  
2011 Otsaila. Topagunearen Kongresua  
2011 Urtarrila. Anboto, Berbaro eta Platerueneako zuzendaritzak gogoetan  
2011 Maiatza. Bederatzikoaren osatzea.  
2011 Abendua. "Euskarak 365 egun" kanpaina.  
2012 Martxoan. Berbaro taldearen I.Jardunaldiak  
2012 Maiatza/ekaina. Berbaro Taldearen II.Jardunaldiak



# GUREAN EUSKARAZ PROIEKTUA

**Aurtengo Gurean Euskaraz Proiektuko ikasturtea bukatzeaz dugu. Asko izan dira ikasturte honetan izena eman duten ume eta gazteak. Hauek guztiak, baldintza, egoera eta arazo desberdinengatik etorri dira Euskal Herrira, Durangora eta gero gurera. Honakoak beraietako batzuen bizipen, iritzi eta sentimenduak.**

## Nicaragua- Jasiel 7 urte

Lau urterekin etorri nintzen hona eta hau oso polita den arren, 14 urteko anaia daukat han amonarekin bizitzen eta asko botatzen dut faltan. Egunen batean anaia ere etorriko da hona bizitzera. Nik bezala berak ere euskara ikasi beharko du eta, hasieran, ez da oso erraza. Gureanen lagun asko egin ditut eta oso ondo pasatu dut. Bera datorrenean ere hona etortzeko esango diogu.

## Senegal –Senabou 13 urte

Uztailaren 30ean etorri nintzen Durangora. Gurasoekin eta nebarekin etorri naiz. Etxean hainbat hizkuntza dakizkigu: Wolofa, Mandingoa, Frantzesia eta baita Arabea ere. Nik pentsatzen nuen Euskal herrian gaztekeraz bakarrik hitz egiten zela. Euskara asko gustatzen zait baina oso zaila da; astiro banabil ikasten. Gureaneko hezitzaileak asko lagun-tzen didate eta kurtsoa ondo daramat.

## Ghana- Freda 14 urte

Gurasoak, anai-arrebak eta ni 2008an etorri ginen hona. Ez genekien euskara baina urteekin gauza asko ikasi ditugu; baina ez da erraza izan. Askok eskolan eta kalean gaztekeraz hitz egiten dute...Orain dela 4 urte apuntatu nintzen lehenengoz Gurean Euskaraz. Asko lagundu didate eta orain etxeko lanak egiten bakarrik etortzen naizen arren, oso ondo pasatzen dut.

## Pakistan- Zain 14 urte.

Urte batzuk daramatzat hemen eta hau oso desberdina da. Guraso eta arrebarekin bizi naiz eta familia osoa daukat Pakistanen; asko botatzen ditut faltan. Etxean Urdueraz hitz egiten dugu eta hango ohiturak jarraitzen ditugu. DBH ari naiz ikasten eta euskara eta gaztelera ikasi nahi ditut. Gero lan egiteko... Gurean-era oso gustura etortzen naiz, etxeko lanak egitera eta euskara lantzerara. Asko lagun-tzen didate!

## Nigeria- Wilfred 7 urte.

2011. urtean etorri naiz Euskal Herrira. Lau anai-arreba gara baina hemen ni bakarrik nago gurasoekin. Hau oso desberdina da eta familia faltan botatzen dut! Etxean ingelesez hitz egiten dugu eta hasieran asko kostatu zaidan arren, orain euskaraz ere hitz egiten dut apur bat. Pinondora gustura etortzen naiz, jolastera, eskulanak egitera... Nigerian eskolatik kanpo ez genuen horrelakorik!

## Errumania – Roxana 11 urte

Orain dela 2 urte etorri nintzen. Hasieran euskara, Txinoa bezala, oso arraroa zela pentsatu nuen. Zaila da baina azkenean erraza. Gurean-etik gehien gustatu zaidana, ni bezala kanpotik etorritako lagun asko egin dudala da, eta euskara ikasten lagun-tzen digutela. Bigarren urtea da eta datorren urtean ere apuntatu nahiko nuke!

## Bartzelona- Junior 9 urte

Guraso eta familia Afrikarrak (Ghanakoak) dauzkadan arren, arreba eta biok Bartzelonan jaio gara eta aurtan etorri gara Euskal Herrira. Lagunak Bartzelonan utzi ditugu eta ez ditugu gehiago ikusiko. Katalanez ikasi dugu eta euskaraz astiro-astiro gabiltza ikasten. Gureanen lagun asko egin ditugu biok, oso ondo pasatzen dugu!

# Julene Azpeitia

Durango **LEHIAKETA**  
IPUINAK OLERKIAK BERTSOAK

Ipuinak, olerkiaketa bertso paperak epaimahaikideen eskuetan daude. 300dik gora abentura eta pasadizo batu ditugu aurten, gehienak durangar gazteek idatzitakoak. Onenei saria emango zaie ekainaren 10ean egingo den ekitaldian, baina saririk potoloena gazteek euskaraz naturaltasunez idazteko erakusten duten gaitasuna da. Lehiaketarako egin dute, ondo dago. Idazten dugun unetik, denok gara idazle, beraz, praktika horri jarraitzera animatu behar ditugu. Norberarentzako baino ez bada ere, egunerokoan edo, orrialde zuriak euskal letraz betetzeko premia dugu-eta. Egin dagigun.

## Udaleko "Euskara Biziberritzeko Plana" eta "Erabilera Plana"

Udalak euskara sustatzeko 2 plan ditu: batetik, udaleko barne Erabilera Plana eta, bestetik, kalera begirako EBPN. Biak ala biak datorren abenduan amaitzen dira. Beraz, 2013-2016 aldirako planak egiteko unea da. Hau da, euskararen egungo egoeratik abiatuta zelako Udala nahi dugu? eta zelako gizartea? Galdera horiei erantzuteko Durangoko hainbat talderekin batu gara: kirol taldeekin, kultura elkarteekin, ikastetxeekin, etorkinekin lan egiten duten elkarteekin, hedabideekin eta merkatariekin.

Zuk, Berbaroko bazkide, ze iritzi daukazu? Zure ustez zer egin liteke kirol talde, elkarte edo ikastetxeetan? Zer landu daiteke? Zer aldatuko zenuke Udaleko zerbitzuetan (HAZ, polikiroldegia, San Agustin, biblioteca...)?

Bidali zure iritziak, iradokizunak edo ideiak helbide honetara: [trebatzailea@durango-udala.net](mailto:trebatzailea@durango-udala.net)



## KULUNKAN IKAS-JOLAS GUNEA

Kulunkan ikas-jolas gunea izango da; zehazki, balioetan oinarrituko den haur, nerabe eta gazteen hezkuntza integral baten aldeko jolastoki hezitzailea. Datozen Gabonetan egingo da Durangon.

Bi egunetan burutuko den aisialdi ekimena dugu, hain zuzen ere, jolas, dinamika eta tailerren bidez pertsonaren gaitasunak garatzeko eta balioetan hezteko aukera emango da bertan: euskara eta euskal kultura, kulturartekotasuna, hezkidetzatza, inklusibitatea, lankidetzatza, elkartasuna, gatazken konponbidea, ingurumenarekiko errespetua eta abar.

Beste helburuetako bat, herrien parte-hartze prozesuak aktibatzea litzateke, aisialdi hezitzailea abiapuntu izanik. Durangaldeako eta, oro har, Euskal Herriko eragile eta norbanakoen arteko elkarlana indartzea eta saretzea aisialdi hezitzailearen esparruan.

Gurasoak ere martxan jarriko ditugu, karroarekin zain egon beharrean, haur eta gazteek egingo dutenaren parte-hartzaile zuzen izatera animatuko ditugu, haur eta gurasoen arteko komunikazioa sustatuz.

Hiru gune eskainiko dira, Landako-LESAn haurrentzako gunea; nerabe eta gazteentzako ekimenak Azoka Zaharrean; eta guraso edo helduentzat, Plateruena Kafe Antzokia erabiliko da. Horrela, gune bakoitzak egitarau propioa izango du baina lotuta egingo dira, antzeko gaiak landuz.

Kulunkan ikas/jolas gunea eragile eta elkarte ezberdinen parte-hartzearen birtatez sortu nahi den proiektua da. Ahalik eta eragile-elkarte gehien bildu nahi dituen. Hezkuntza eta aisialdi hezitzaile/euskaldunaren aldeko eragileak batu dira: Ikastolen Elkarte, Sortzen Ikasbatuaz, Urtxintxa Eskola, BIGE guraso elkarte, EGK, GuGeu, Kimuak, Zeozer, Irrien Lagunak, ... eta geuk ere, Berbarotarrok bertan parte hartzeko prestutasuna erakutsi dugu. Denok familia osatu eta elkarrekin Kulunkatzera goaz...



Laguntzaileak:

